

Munduko haurrak

Hainbat herritako haurrek eginiko argazkien erakusketa antolatu du Zabaldik egun hauetarako

Siria, Senegal, Kuba, Guatemala, Nikaragua, Mexiko, Kolonbia eta Euskal Herria. Herri horietan argazki makinak eman zizkieten 10 eta 14 urte bitarteko hainbat neskato eta mutikori, baita honako araua ere: «Koadrotxoan ikusten duzuna besterik ez da agertuko argazkian. Botoia sakatu eta saia zaitez argazkia leku ilun batean ez ateratzen». Gaztetxoek eginiko 50 argazkiekin erakusketa egin dute Zabaldiko euskara taldekoek.

Koldo Azkune:

ZABALDIN HAURREN INGURUAN ZERBAIT berezia egiteko asmoa zuten, Zabaldiko euskara taldeko Koldo Azkunek azaldu duenez. «Haurren inguruko kontuei buruz helduak solastu izan dira beti, eta guk haurrei eman nahi genien hitza. Zabaldin internazionalista dezente ibiltzen dela aprobetxatuz, hauxe egitea bururatu zitzaigun: beste herri batzuetara zihoazenei bina argazki makina ematea, hango haurrek, neska batek eta mutil batek, bere bizimodu eta inguruaren argazkiak egin zitzaizten, eta, gero, argazki horiekin erakusketa egitea. Bagenekien diru aldetik ez genuela askorik edukiko, eta hau orijinala eta merkea izan da».

Arau teknikoak, besterik ez

Zabaldiko internazionalistek bisitatu behar zituzten lekuen arabera aukeratu zituzten ekimeneko herriak. Internazionalistek arau teknikoak besterik ez zizkieten eman behar haurrei: «Argazkiak distantzia batera atera behar dituzue, leku ez ilunetan, eta botoi jakin bat sakatu behar duzue». Horiek ziren agindu bakarrak. «Haurrei esaten genien beren errealitatea, bizimodua eta ingurua islatu behar zutela 27 argazkitako karrete batekin», adierazi du Azkunek. «Beste guzia beren esku zegoen eta, horregatik, sekulako aniztasuna dago argazkien artean».


Hasiera batean erakusketa herriko sailkatu nahi zuten. «Baina gero ikusi genuen argazkilari oso ezberdinak zudelako, batzuk nahia go zizutela animaliak ateratzea, beste batzuk nahia go zutelako pertsonak ateratzea, eta, azkene-

«Argazkietan ikusten da zer nolako ezberdintasunak dauden, baina, bidenabar, ikusten da ezberdintasun horiek baldintzetatik sortzen direla, ez berezko ezaugarrietatik. Hori da inportanteena, ikustea haurrak berdinak direla Euskal Herrian, Sirian edo Guatemalan»

an, beste sailkapen bat egin dugu: paisaiak, haurrak banaka, binaka, hirunaka, senitar-tekoekin, helduak, altzariak eta animaliak». Azkunek dioenez, jakin badakite halako erakusketetan erraza dela demagogian erortzea, eta argazkiak herrien arteko ezberdintasunen bila aukeratzea. «Guk manikeismo hori alde batera uztea erabaki genuen. Egia da aukera bat egiterakoan atzetik badirela irizpide batzuk. Baina gure irizpideak ez dira ezberdintasuna markatzeko, argazkien kalitate teknikoaren ingurukoak baizik. Artistikoki eduki gehien dutenak aukeratu ditugu. Hor daude argazkiak, horiek erakusten dute errealitatea. Ez da zertan manipulazioan erori. Ikusleak aterako ditu bere ondorioak».

Ezberdinak baldintzengatik

Azkunek erakusketa antolatu eta ikusi du, baita bere ondorioak atera ere: «Erakusketa ikusi eta gero gelditzen zaizun mezua da, azken finean, haur guztiak berdinak direla, aldatzen diren gauza bakarrak baldintzak direla. Berez ikusten da zer nolako ezberdintasunak dauden, baina, bidenabar, ikusten da ezberdintasun horiek baldintzetatik sortzen direla, ez berezko ezaugarrietatik. Hori da inportanteena, ikustea haurrak berdinak direla Euskal Herrian,



Sirian edo Guatemalan, baina ingurua ezberdina da».

Zabaldikoek erakutsi dute halako aurrekontu txiki batekin ere egin daitezkeela gauza interesgarriak. Baten batek, erakusketa ikusirik, agian pentsatuko du argazki bat edo beste ez dela haur batek egin. «Guk hori ezin izan dugu konprobatu», esan du Azkunek. «Pentsatu nahi dugu argazki gehienak haurrek atera dituztela, baina inork duda izpirik baldin badu, jakin dezala inondik inora ez dituela profesional batek atera, eta atera duenak ez duela inoiz argazki makinarik hartu, eta, ziur aski, ez duela inoiz gehiago hartuko».

Ikuspegi zabalagoa

Azkune Mexicon ibili zen, eta haraino eraman zituen bere kamerak. «Lehenbizi saiatu nintzen Distrito Federaletako haurrekin. Baina haien diru beharrak dituzte, eta lau argazki makina saldu egin zituzten. Gero, Chiapasko haurrekin lortu nuen». Denetara sei makina galdu zituzten Zabaldikoek. 1.000 pezetako makinak ziren. «Eta hala ere nahiko ongi atera dira argazkiak, kontuan